

Euskararen Gaitasun Agiria

EGA

ATARIKO PROBA

2005eko otsailaren 26a

Azterketa-eredua: A

IRAKUR ITZAZU OHARRAK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu azterketa honek 8 orrialde dituela eta ordena zuzenean daudela.
3. Idatzi hemen zure izen-deiturak eta NA zenbakia.

<i>NA zenbakia</i>	<i>Izena</i>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<i>1. deitura</i>	<i>2. deitura</i>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<i>Euskaltegia</i>	
<input type="text"/>	

4. Gogoan izan azterketa honek ordubete iraungo duela, entzutezko ulermeneko galderei erantzun ondoren.
5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko erantzun-orriko B atala.
6. Ariketa bakoitzean erantzun **egokiena** edo **zuzena** aukeratu eta erantzun-orrian kasuan kasuko koadrotxoa arkatzez markatu: erantzun bakarra onartuko da.
7. Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat izango du.
8. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.
9. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzenduko da. Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onspena ematen diola ulertzen da.

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

- 1. Agustin Egurrola Euskal Herrira...**
 - A askotan etortzen da.
 - B oso gutxitan etortzen da.
 - C noizean behin etortzen da.
- 2. Australian noiz izan da?**
 - A Orain dela gutxi.
 - B Orain dela bost hilabete.
 - C Orain dela denbora franko.
- 3. Non igaro zituen Agustin Egurrolak lehenengo urteak?**
 - A Lehendabizi Markinan.
 - B Markinan baino lehenago Etxebarrin.
 - C Hogeita zazpi urte arte Markinan.
- 4. Lehenengo aldiz Pirinioetara norekin joan zen?**
 - A Mutrikuko talde batekin.
 - B Elgoibarko aldra edo talde batekin.
 - C Elgoibarko mutil batekin.
- 5. Suitzara joan nahi zuen...**
 - A lan premian zegoelako.
 - B mendi handiak daudelako.
 - C lanean aritzeko gogorik ez zuelako.
- 6. Ingelesa noiz ikasi zuen?**
 - A Frantsesa ikasi ondoren.
 - B Donostian bizi zela.
 - C Hogeita bi urte inguru zituela.

BIGARREN ATALA

- 7. Agustin Egurrolak munduan zehar ibiltzen...**
 - A lagun batekin ikasi zuen.
 - B bakarrik ikasi zuen.
 - C baserritar batekin ikasi zuen.
- 8. Erraza al da Agustinentzat bakarrik ibiltzea?**
 - A Ez, zaharrek ez baitute ezertarako gogorik izaten.
 - B Ez, babes gutxi izaten baita.
 - C Bai, gazteek sasoi hobia izaten baitute.

- 9. Agustinen adineko jendeak kanpora joan nahi du?**

- A Nahi bai, baina ezin du.
- B Ez du gogorik, ezta modurik ere.
- C Aukera badu, baina ez du nahi.

- 10. Agustinen aita...**

- A munduan zehar dexente ibilia zen.
- B kezkatu egiten zen semea etxetik irtetean.
- C ez zen etxetik irten zale.

- 11. Aitak inoiz bultzatu al zuen etxetik irtetera?**

- A Ez, ama izaten zen bultzatzen zuena.
- B Bai, lotsagarria baita etxetik ez irtetea.
- C Ez, aitak ez zion inoiz esan etxetik irteteko.

HIRUGARREN ATALA

- 12. Oharrak hartzeko ohitura handia al du?**

- A Bai, etxean nahiz kanpoan egon.
- B Gaztea zenean bai, orain jadanik ez.
- C Bai, bakardadeak bultzatu zuen oharrak hartzera.

- 13. Euskarazko liburuaren lehenengo moldapena...**

- A euskaraz idatzi zuen berak.
- B anaiak euskaratu zuen.
- C euskara batuan idatzi zuen.

- 14. Zer-nolako hoteletan egiten du lo?**

- A Lau izarreko hoteletan ia beti.
- B Ez du hoteletan lo egiten.
- C Hotel on eta ez oso garestietan.

- 15. Bere ustez, libururik ederrena...**

- A esperientzia eder eta erraza izan zen.
- B gaztelaniaz idatzitako bat da.
- C bost urte baino gehiago dira idatzi zuela.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

16. Mirenekin joango da Bilbora. Harridura adierazteko, zein da okerra?

- A Mirenekin joango dela Bilbora?
- B Mirenekin joango den Bilbora?
- C Norekin joango dela Bilbora?
- D Nora joango dela Mirenekin?

17. Horrek zipitzik ere ez

- A daki.
- B du.
- C dihardu.
- D dauka.

18. Hurrengoetatik, zein da zuzena?

- A Otsailatik maiatzara.
- B Larunbatatik astelehenera.
- C Zelaietik mendirantz.
- D Izenetik abizenera.

19. Zer esan nahi du zelatatu hitzak?

- A Norbaitek egindako ekintza txarrak edo legez kanpokoak agintariei jakinarazi.
- B Norbaiti, bera konturatu gabe begira egon, egiten duenaz jabetzeko.
- C Zaldiei eserlekua jarri, gizakiak beren gainean errazago ibiltzeko.
- D Edozein abere, baina bereziki zaldiak eta txakurrak, gizakientzat hezi.

20. Zein da zuzena? Nire gogoz kontra hori egitera behartuko, gorrotatuko

- A banindu nioke.
- B banindu nuke.
- C balit nuen.
- D balit nion.

21. Ez dago zalantzarik, hori mutrikuarra da. Aukeratu baliokidea:

- A Hori mutrikuarra, inondik ere!
- B Hara bestea, hori mutrikuarra!
- C Hori mutrikuarra? Ezta hurrik eman ere.
- D Hori mutrikuarra? Egon horretan!

22. Ez zen burutik maingua mutil hura! Zer esan nahi du?

- A Ez zela batere inozoa.
- B Nahiko buru txarra zuela.
- C Ez zuela buru argirik.
- D Ez zela burusoila.

23. Zein dago gaizki?

- A Baionan elkarretaratu dira alderdi guztiak akordioa sinatzeko.
- B Ezinegona eta elkarrenganako ezinikusia besterik ez dute sentitzen orain.
- C Elkarrengandik urrun ibili beharrak eragiten dit tristura.
- D Abokatu eta akusatuek elkar hitz egiten zuten etengabe.

24. Obrak direla eta, autobia egingo dute.

- A kateatu
- B ebaki
- C itxi
- D hesitu

25. Besterentzat sortzen ez duenak ez du beretzat ere sortzen eta horrela, ezinbestean, besteren mendeko bihurtzen da. Hau da:

- A Ez besterentzat ez beretzat sortzen ez duena ez da sortzaile ezinbestean.
- B Inorentzat sortzen ez duenak ezinbestean bere buruarentzat sortuko du.
- C Besterentzat eta beretzat ez sortzeak besteren mendeko izatea dakar.
- D Bere buruarentzat ez ezik besterentzat ere sortzen duena besteren mendeko bihurtuko da.

26. Neskatala hori baratxuria baino da.

- A faltsuagoa
- B zintzoagoa
- C finagoa
- D txikiagoa

27. Toki-izen zerrenda hauetako zein dago ondo euskara batuan?

- A Balentzia, Madrid, Erroma, Gasteiz.
- B Valenzia, Madrid, Roma, Gazteiz.
- C Balentzia, Madril, Roma, Gazteiz.
- D Valenzia, Madril, Erroma, Gasteiz.

28. Epaillearengana eraman dute, baina txintik ere ez du

- A esan.
- B hitz egin.
- C egotzi.
- D ebatsi.

29. Esaten ari nintzaionarekin bat ez zetorrela ikusirik,

- A gaiz aldatu nintzen.
- B gaitaz aldatu nuen.
- C gaiaz aldatu nuen.
- D gaia aldatu nuen.

30. Norbaitek "*Tira, tira!*" esanez erantzuten badizu, zer esan nahi du?

- A Zurekin erabat konforme dagoela.
- B Haserretu egin dela zurekin.
- C Zehaztasun handiz ari zarela.
- D Ederra bota duzula.

31. Zein da zuzena?

- A Horregatik etorri zen, ez besterik.
- B Horregatik egin zuen, ez beste ezergatik.
- C Horregatik ez ezik, zuk esandakoaz ere baliatu dira.
- D Nahiz honekin nahiz eta zurekin ongi moldatzen naiz.

32. Zein da zuzena?

- A Ezkerreko hankak lokartu dit.
- B Ezkerreko hanka txindurritu egin zait.
- C Ezkerreko hanka lotaratu zait.
- D Ezkerreko hanka ezin esnaturik gelditu zait.

33. *Elurra gogotik egin zuen joan den neguan. Zer esan nahi du?*

- A Elurra denen gustura egin zuela.
- B Elur asko egin zuela.
- C Uste baino elur gehiago egin zuela.
- D Elur-maluta handiak egin zituela.

34. *Bihar autobusa garai z helduz gero, osabarenera bazkaltzera.*

- A joan ninteke
- B joango nintzen
- C joango ninteke
- D joan nintzateke

35. *Hiztegi batuari begira, zein da zuzena?*

- A Arraultza, errez, pixkat, artzai.
- B Arrautza, erraz, piskat, artzain.
- C Arraultza, errez, pizka bat, artzai.
- D Arrautza, erraz, pixka bat, artzain.

36. *Propio etorri naiz zuek ikustera. Beste era batera:*

- A Lasai asko etorri naiz.
- B Beren-beregi etorri naiz.
- C Aitaren batean etorri naiz.
- D Zuek ikusteko aitzakian etorri naiz.

37. *Izena ukaturik izana ukatzen delako itxurak eginez bizi da jende anitz. Bestela esanda:*

- A Izena ukatzeak izana ukatzea eragingo balu bezala bizi da makina bat.
- B Izenari eta izanari uko eginez bizi da hainbat eta hainbat pertsona.
- C Bakarren batek pentsatu ohi du izena ukatzeak izana ukatzea dakarrela.
- D Izena eta izana ukatzerik ez balego bezala bizi da jende ugari.

38. *Ondorengo esaldietatik, zein da zuzena?*

- A Inguruko enpresek errekarra bota egiten dituzte zakarrak.
- B Sukarra etorri egiten den bezala joaten da.
- C Hitzarmenak eta antzekoak irakurri egin behar dira izenpetu aurretik.
- D Gauero irakurri egiten dizkiot umeari ipuinak.

39. *Zer, oso lanpeturik zabilta ala? Aukeratu erantzun egokia.*

- A Bai, zorroa bete lan.
- B Bai, sakela bete lan.
- C Bai, galtzak bete lan.
- D Bai, burua bete lan.

40. *Hitz zerrenda horietan, zeinetan daude ortografi akatsak?*

- A Itxura, saihets, ospakizunak.
- B Atxegina, hautsa, garrantzizua.
- C Itsua, saiatu, osasuntsu.
- D Kutsadura, behinik behin, aprobetxatu.

41. Zein da zuzena?

- A Tenisean jolastu; tanto berri bat.
- B Tenisera jolastu; beste tanto bat.
- C Tenisean jokatu; beste tanto bat.
- D Tenisera jokatu; tanto berri bat.

42. *Erljioaren irakaskuntza Eskolari Elizari dagokiola uste dut.*

- A beharrez
- B ordea
- C ezik
- D barik

43. *Zeri edo nori esaten zaio amazulo?*

- A Amarik ez duen umezurtzari.
- B Amaren urrutzeak umearengan eragiten duen hutsuneari.
- C Amaren behar nabarmena erakusten duen haurrari.
- D Amari egotzi behar zaion hutsuneari edo kalteari.

44. *Kirolari ospetsua lasterka, eta atzetik, autografo eske, zaletu Zein dago gaizki?*

- A jendetza.
- B andana.
- C piloa.
- D mordoa.

45. Zein da zuzena?

- A Damu dut hori egin izateari.
- B Damu dut hori egin izana.
- C Damutu dit hori egiteak.
- D Damutzen dit hori egitea.

46. *Ohar bat jarri diet, bihar etorri behar dutela esanez. Beraz:*

- A Konturatuta daude.
- B Jakinaren gainean daude.
- C Oharkabeen daude.
- D Ohartuta daude.

47. *Zein da zuzena? Oporrak hartuko ditugu*

- A abuztuaren 8tik irailaren 5era.
- B abuztuaren 8etik irailaren 5era.
- C abuztuaren 8tik irailak 5ra.
- D abuztuak 8-etik irailaren 5-tara.

48. *Ziztu batean bukatu zen pilota partidua. Zer esan nahi du?*

- A Partidua txistua entzun zutenean bukatu zela.
- B Partidua oso azkar bukatu zela.
- C Partidua epaileek nahi izan zutenean bukatu zela.
- D Partidua inor konturatu gabe bukatu zela.

49. *Agindua argia da: eman nori berea.*

- A dezan
- B bedi
- C bekio
- D dadin

50. *Emazteki txit setatia zen. Hots:*

- A Emakumezkoak behar asko egiten zuen.
- B Anderea erabat apainduta ibiltzen zen.
- C Emakumeak ez zuen erraz amore ematen.
- D Andrea perretxiko zale amorratua zen.

51. *Zein da zuzena?*

- A Zerbait edateko eta buelta bat emateko gogoak dauzkat.
- B Festak eta alkohola oso lotutak daude.
- C Esan dizkidate gauza batzuk, ez direla sinestekoak.
- D Azkenengo hamar urteotan ez dut ikusi.

52. *Hurrengo zerrendetatik, zein dago zuzen idatzita?*

- A Segundoa, gustua, olio, harrikoa.
- B Minutoa, makailua, tonoa, beroa.
- C Katolikua, harrua, leloa, herrikoa.
- D Sekreto, asmua, faroa, gandua.

53. *Araza larri horrek*

- A kate bihurria ekar lezake.
- B isats handia ekarriko du.
- C buztan galanta ekar dezake.
- D soka luzea ekarriko du.

54. *Hilko naiz, baina ez naiz osoro suntsituko, geroagokoengan neure aztarna utzi gabe. Hau da:*

- A Geroagokoengan bere aztarna utzi gabe ez luke inork hil behar.
- B Hil eta suntsituko bada ere, geroagokoengan bere aztarna utzi ondoren izango da.
- C Hilko da, baina ez da erabat deuseztatuko, ondorengoengan utziko baitu bere aztarna.
- D Hil eta guztiz suntsituko bada ere, geroragokoek gogoan izango dute.

55. *Izan bedi zilegi bere hizkuntzan hitz egitea!*

- A norbaitek
- B bakoitza
- C norik
- D norbera

56. *Berez, oso pertsona lasaia da Martin; kostatuko zaizu hura*

- A bere baitarik kanpora ikustea.
- B bere onetik irtenda ikustea.
- C lekuz kanpo ikustea.
- D bere-beretik aterata ikustea.

57. *Zein da zuzena?*

- A Enpresako zuzendaria, Fermin Lizarralde, hartu du erabaki hori.
- B Datorren igandean, hilak 12, hasiko da ikastaroa.
- C Ikastetxeko zuzendaria Manuel Agirre ez da etorri bilerara.
- D Gaur lantegiko arduradunarekin, Fermin Mendia, egon naiz hizketan.

58. *Zein da zuzena? Eskerrak Pello*

- A etorri delari.
- B etorri delarik.
- C etorri da.
- D etorri den.

59. *Aita alferra eta lotia, eta semea gauza bera.*

Hau da:

- A Semea aitaren kutuna da.
- B Semea aitaren ezpalekoa da.
- C Semea aitaren besoetako da.
- D Semea aitaren begietako da.

60. *Ortografiaren aldetik, zein da zuzena?*

- A Esteban Urkiaga (Lauaxeta), olerkari bizkaitarraren mundualdia, 1905-1937, laburra bezain joria izan zen.
- B Hauze bota zion Ciceronek Catilinari: "Aizu Catilina, kokolo hori quosque tandem?"
- C "Argi esango dizuet: tentel madarikatuak dira oposizioko guztiak!", adierazi zuen alkateak (hainbat herritarren aurrean).
- D Pott-eko hiru kide izan dira Bilbon: Ordorika (kantaria), Atxaga eta Iturralde.

61. Hitz zerrenda hauetako batean hitz bat lekuz kanpo dago. Zeinetan?

- A Haizetea, tximista, kazkabarra, ekaitza.
- B Zauria, beltzunea, odolkia, ubeldua.
- C Suhia, erraina, aitabitxia, neba.
- D Iturgina, igeltseroa, hargina, arotza.

62. *Ez bizkarreratu niri zure zorroa!*
Zer esan nahi du?

- A Erantzukizuna zeurea dela, ez nirea.
- B Ez zarela nire kontura biziko, ez horixe!
- C Jan-edan kontuan neurritz ibili behar dela.
- D Zorren karga zeuk hartu behar duzula.

63. Zein da zuzena?

- A Jenio txarrez mintzatu zaidanak korrika irten da.
- B Horiek ez dira gaur egun kezkatzen didaten arazoak.
- C Lezakeenak egiten ez badu, zer eska diezaiokegu ez lezakeenari?
- D Jarrita daudenek ez diote Arantxarekin ateratzen zenari ezagutzen.

64. *Ez nuen behar bezala garbitu, eta zauria egin zait.*

- A herdoildu
- B gaiztotu
- C abaildu
- D beratu

65. Hurrengo zerrendetatik, zein dago zuzen idatzita?

- A Igerri, izkutatu, somatu, bapatean.
- B Igarri, ezkutatu, sumatu, urrun.
- C Jesarri, jaitxi, eskaini, hurrun
- D Jezarri, jeitsi, eskeini, bat-batean.

66. *Josetxo neure besoetako dut. Zer esan nahi du?*

- A Josetxo nire besoetan hazitakoa dela.
- B Josetxo nik bataiatu nuela.
- C Neu naizela haren aita pontekoa.
- D Josetxo nire iloba dela.

67. *Ez da izurrik, ez pozoinik nagitasunak bezainbateko kaltea eragiten*

- A duela.
- B duenik.
- C duena.
- D duenentz.

68. *Epelak esan dizkigu Mikelek. Hau da:*

- A Txepel dagoela adierazi du, zer egin ez dakiela.
- B Sekulakoak esan dizkigu.
- C Bere zalantzak adierazi dizkigu.
- D Kontu kontari aritu zaigu.

69. *Nornahik ezagutzen ditu ondorengoak, hemen bilduak eta hor barrena sakabanatuak. Hau da:*

- A Ondorengoak ederki ezagutzen ditu hemen bilduak eta hor barrena sakabanatuak.
- B Edozeinek ezagutzen ditu hemen bildu eta hor barrena sakabanatutako ondorengoak.
- C Nornahik ezagutzen ditu ondorengoak, hemen eta hor bildu eta sakabanatuak.
- D Edozeinek ezagutzen ditu ondorengoak, hemen bildu eta hor barrena sakabanatuagatik.

70. *Hori Iñakiren eta Edurneren zeregina da. Beraz,*

- A nik ez dut inoren galtzetan sartzeko asmorik.
- B nik ez dut haien atorra jantzi nahi.
- C nik ez dut haien plateretik jateko gogorik.
- D nik ez dut haien itzala izan nahi.

71. *..... mendian ordekan bikain moldatzen da txirrindulari hori. Aukeratu egokiena.*

- A Nola hala
- B Non non
- C Non baita
- D Bai hala

72. Euskara batuan, zein da zuzena?

- A Ate aurrean itxarongo zaitut.
- B Etxeraino lagundu diote.
- C Afaltzera gonbidatuko diet.
- D Gaur ere musean irabaziko zaitut.

73. *Aizu, bi urte egin dituzu Irlandan eta ikasi al duzu ingeles apurren bat? Ezinbestean ikasi duzula adierazteko, zer erantzungo duzu?*

- A Jakina ikasi!
- B Baita ikasi ere!
- C Bai zera ikasi!
- D Beharko ikasi!

74. *Jardunaldiak izango dira.*

- A Donostiako San Inazioren elizan.
- B Donostiako San Inazio elizan.
- C Donostiako San Inazioko elizan.
- D Donostiako San Inaziorenean.

75. *Noiz dira herriko jaiak?*

- A Irailaren 7tik 21era.
- B Irailak 7tik 21era.
- C Irailaren 7tik 21etara.
- D Irailak 7-21.

76. *Goian zerua eta behean lurra bizi da. Aukeratu esanahi egokiena.*

- A Etxeorratz batean bizi da.
- B Miseria gorrian bizi da.
- C Inor baino zoriontsuago bizi da.
- D Zerua eta lurra besterik ez du ikusten.

77. *Horrenbeste erabiliz gero, telefonoaren fakturak ezusteko galantak ekar*

- A diezazkiguke.
- B dizkiguke.
- C zaitzake.
- D liezaguke.

78. *Hurrengo hitz zerrendetan, zein dago erabat zuzen?*

- A atertu, harbel, gende, saihestu.
- B hauspo, ohiuka, peseta, zimaur.
- C ildo, hunkitu, huskeria, ziur.
- D arreta, leihaketa, gutxietzi, isurde.

79. *Norbait zure ondotik bidali nahi izanez gero: Ez zaitut berriro ikusi nahi!*

- A Bejondeizula!
- B Purra!
- C Utikan!
- D Topa!

80. *Zein da zuzena? Kontuz tunelean,*

- A argi gutxi dagoela!
- B argi gutxi dagoela ta!
- C argi gutxi baitago eta!
- D argi gutxi dago eta!

81. *Bertso zaharrak erruz zekizkien hark. Zer esan nahi du?*

- A Oker ikasi zituela.
- B Asko zekizkiela.
- C Nahastuta zegoela.
- D Akats asko egiten zituela.

82. *Denboraren errotako hautsez gaindi gera daitekeen obra taxutzea du artistak helburu. Hau da:*

- A Gera daitekeen obra osatzeko bere denborari eta gerokoari erreparatu behar dio artistak.
- B Bere garaiari zuku guztia atera behar dio artistak behin betiko lana taxutzeko.
- C Sasoian sasoihoa baino areago, artistaren xedea lan iraunkorra osatzea da.
- D Une jakin bati nahiz tradizioari erantzuten dio artea helburua duen artistaren lan iraunkorrak.

83. *Zein da zuzena?*

- A Kalearen zehar doanean bakarrik ikusten dut.
- B Beste egunean neska horrekin ikusi nuen Marixabel.
- C Horretaz aparte, beste hau ere erakutsi nahi nizueke.
- D Biren egun barru hemen izango naiz berriz ere.

84. *Segidako perpausen artean, zein EZ da egokia?*

- A Edozein huskeriagatik haserretzen dena erretxina da.
- B Ondasunik ez duena behartsua da.
- C Bere egitekoa ongi betetzen duena langilea da.
- D Hizketan etorri jarioduna duena hitz-motela da.

85. *Norbera egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin agindu dakioko besteri. Hau da:*

- A Ez diogu inori gauza zailik agindu behar.
- B Agintzen duguna egiteko prest gaudenean ez diogu besteri ezer eskatu behar.
- C Besteri agindu dakiokkeen gauzarik zailena egiteko prest egon behar dugu.
- D Ezin diogu beste inori agindu geu egiteko prest ez gauden gauzarik.

86. *Rikardori omen dio.*

- A bihotzekoak eman
- B bihotzekoak jo
- C bihotzekoak harrapatu
- D bihotzekoak heldu

87. *Zein da zuzena?*

- A Guri ez ziguten ezer ez esan, eta beste inori ere ez.
- B Gutxi den arren, zerbait ezer baino gehiago da.
- C Atera naiz, eta ezertarako, inor ez baitago kalean.
- D Ezer gutxi egin dezake, inoren laguntza eskatu ezean.

88. *Norbaiten edo zerbaiten alde apustu egiteko, zer esango zenuke?*

- A Eskua jokatuko nuke...
- B Lepoa jokatuko nuke...
- C Purrust egingo nuke...
- D Zotz egingo nuke...

89. *Zahar eta ezinduen iritsi omen zaie agindutako osasun laguntza.*

- A %20ari
- B %20ri
- C %20ei
- D %20-ei

90. *Lagun batek liburu batzuk eskatuz gero, nola emango zenioke ezezkoa?*

- A Et, et, et... ekariezazkidak lehenengo aspaldi eramandakoak.
- B Hi izanda, eskatu baino ez daukak!
- C Hiri? Nola ez ba?
- D Ez diat libururik uzten, baina hi haizenez...

91. Zein da zuzena?

- A Urtean zehar zerbait aurreratuz gero, udan txango ederra egingo genuke.
- B Duela urte batzuk, edonork bidaiatzeko aukera ezinezkoa izango litzatekeen edonorentzat.
- C Musikaririk ez balego bizitza ez zen berdina izango.
- D Aspaldi etorri nintzen Gasteizera eta orain ezingo nintzen herrira itzuli.

92. Goialdeko ostertz zabalean hodeiak ikusten dira eta hauen artean erpinak agerian uzten dituzte mendi malkartsuak. Hau da:

- A Mendi malkartsuek agerian uzten dituzte goialdeko ostertz zabalean erpinak.
- B Zeruertzean erpinak ageri dira, eta horiek begibistan uzten dituzte mendi malkartsuak.
- C Zeru zabalean, hodeien artean, erpin malkartsuak ageri dira.
- D Zeruertzean mendi malkartsuek hodeien artean islatzen dituzte gailur zabalak.

93. Zein da zuzena?

- A Haurdunaldian umekiari kalte izugarriak suertatzen dizkio tabakoak.
- B Bere txikian, Gipuzkoak mendi bikainak eta makina bat hondartza dotore ditu.
- C Abiadurak eta arretarik ezak dute istripu askoren erruduna.
- D 1999an 1998an baino hil gehiago eman ziren auto istripuetan.

94. Zein da zuzena?

- A Ume guztiak eskubidea dute hezkuntza ona jasotzea.
- B Bizitza non igarotzea bakoitzaren kontua da.
- C Gehienetan, gauza guztiak konpontzen dira hitz egiten.
- D Hoberik ezean, gauden tokian gelditzea dugu onena.

95. Azterketa oso zaila izango da;, hobe duzu lehenbailehen ikasten hasi.

- A hortaz
- B hain zuzen
- C hala nola
- D bestalde

96. Minbiziak hil zen.

- A jota
- B oldartuta
- C bultzatuta
- D behartuta

97. Oso ondo ari zen, gainera, lehen talderako zeukaten, baina futbola uztea erabaki du.

- A begiz jota
- B begitan hartuta
- C eskuineko begian
- D begikoa botata

98. Txineraz eginda ere, nik adituko dizut. Zeinek EZ du adostasuna adierazten?

- A Zera adituko duzu zuk!
- B Horixe adituko duzula!
- C Adituko ez duzu, ba!
- D Noski adituko duzula!

99. Bietako bat: ez daki deus, engainatu egin nahi gaitu.

- A edo edo
- B ala ala
- C ala edo
- D edo ala

100. Horrenbeste lan egin eta ez du ezer kobratzen. Hau da:

- A Musu truk egiten du lan.
- B Aho bete hortz ematen diote.
- C Larrutik ordaintzen diote.
- D Huskeria irabazten du.

OHARRA:

Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NA zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.

Atarikoa 2005 / 02 / 26 Erantzunak

1 C	21 A	41 C	61 B	81 B
2 A	22 A	42 D	62 A	82 C
3 B	23 D	43 C	63 C	83 C
4 B	24 C	44 A	64 B	84 D
5 B	25 C	45 B	65 B	85 D
6 A	26 C	46 B	66 C	86 A
7 B	27 D	47 A	67 B	87 D
8 B	28 A	48 B	68 B	88 B
9 B	29 D	49 C	69 B	89 B
10 A	30 D	50 C	70 A	90 A
11 C	31 B	51 D	71 A	91 A
12 C	32 B	52 A	72 B	92 B
13 B	33 B	53 D	73 D	93 B
14 B	34 A	54 C	74 B	94 D
15 B	35 D	55 C	75 A	95 A
16 B	36 B	56 B	76 B	96 A
17 A	37 A	57 B	77 A	97 A
18 D	38 C	58 D	78 C	98 A
19 B	39 C	59 B	79 C	99 A
20 B	40 B	60 D	80 D	100 A